

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**IKERKUNTZA UPV/EHUren SAILETAN
SUSTATZEKO DEIALDIA
(2020-2022)**



PLAN
BASQUE
UNIVERSITY
SYSTEM

ATARIKOA

UPV/EHUK, Gobernu Kontseiluak 2018ko irailaren 27an egindako saioan, UPV/EHUren Ikerkuntza Plana onetsi zuen 2019-2022 aldirako. Aipatutako planak dakarren erronken artean dago Euskal Herriarekin konprometitutako jakintza eta berrikuntza bultzatzea, eta horretarako ikerketa unibertsitateko prestakuntzan giltzarria izatea.

Ikerkuntzaren egiturak unibertsitatean ikertaldeak ditu ardatz, ikerketaren oinarriko unitateak baitira, helburu zientifikoak ikerketa ekintzak eginez lortzeko sortuak eta norgehiagokako deialdien eta erakunde publiko eta pribatuekin sinatutako kontratuen bidez finantzatuak.

Hala ere, ikertaldeak, funtsean, irakasle eta ikertzaileek osatuta egoten dira eta horietako gehienak UPV/EHUren sailetakoak dira. Estatutuekin bat etorrita, sailak irakaskuntza eta ikerkuntzarako unitateak dira, eta sailen ardura da jakintza eremu batean edo gehiagotan eta ikastegi batean edo gehiagotan irakaskuntza koordinatzea UPV/EHUko irakats programazioari jarraituz. Era berean, sailen zeregina da irakasleek eta ikertzaileek irakaskuntzaren eta ikerketaren arloan dituzten jardura eta ekimenak bultzatzea.

Hortaz, ikerkuntzak UPV/EHUn aurrera egingo badu, funtsezkoa da sailek izan ditzatela bertako irakasle-ikertzaileak ikerketa jarduerak eta ekimenak sustatu eta laguntzeko behar diren bitartekak.

Helburu honetarako jarri da abian, hain zuzen, ikerkuntza sailetan sustatzeko deialdi hau. Deialdian, guztira, 872.525 € bideratuko dira Eusko Jaurlaritzarekin formalizatutako Bikaintasuneko Ikerketako Kontratu Programatik, "Sailen inplikazioa sutatzea ikerketa jardueran, eta konpromisoak hartzea, irakasle-ikertzaileen ikerlanaren jarraipena egin ahal izateko" izeneko ekintzan. Kopuru hau gehitu ahal izango da, unean uneko aurrekontu izatean arabera.

Horretara, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (aurrerantzean IGBB) aldeko txostena jaso ostean eta Gobernu Kontseiluak onetsi ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak (aurrerantzean IAE) erabaki du subentzioak emateko honako deialdi hau argitaratzea, ondoren zehaztuko diren baldintzetan.

1. oinarria. DEIALDIAREN HELBURUA

Deialdi honen bidez euskarri ekonomiko osagarria eskaini nahi zaie sailei, bertako irakasle-ikertzaileen ikerkuntza jarduna biztu, indartu eta bistartzeko.

Helburu honen erdiesteko, beharrezkoa da hainbat konpromiso adierazle definitzea, sailek egindako ikerkuntza jardueraren bilakaera neurtu ahal izateko eta, aldi berean, sailek bide izan dezaten adierazleetan aurreikusitako helburuak hobetzeko jarduerak burutu ahal izateko bitarte gehigarriak eskaintzeko.

2. oinarria. KONPROMISO ADIERAZLEAK

Ondoren adierazitako adierazleek definituko dute sailaren eta unibertsitatearen artean 2020-2022 aldirako sinatuko den konpromiso dokumentua. Adierazle hauen bidez zehaztu beharko da, deialdi honetan parte hartu nahi duten unibertsitate sail guztien konpromiso dokumentua negoziatzeko esparru orokorra.

A. Ekoizpen zientifikoa:

- Argitalpen zientifikoek kopurua (WoS edo Scopus). Unean uneko urtean, saileko edozein IRI egile edo egilekide dela, argitara eman diren argitalpenen kopurua da. Datu hau bibliotekak emango du.
- Lehenengo kuartileko argitalpen kopurua (WoS edo Scopus). Zein bere kategoriako Q1ean daudela, lehenago argitaratutako argitalpenen kopurua. Datu hau bibliotekak emango du.
- Nazioarteko baterako argitalpen zientifikoek kopurua (WoS edo Scopus).

Lehenago argitaratutakoen artean, atzerriko erakunderen bateko egilerik duten argitalpenen kopurua. Datu hau bibliotekak emango du.

- Euskarazko argitalpen zientifikoaren kopurua. Unean uneko urtean, saileko edozein IRI egile edo egilekide dela, Inguma datu basean agertuta, argitara eman diren argitalpenen kopurua da. Datu hau Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordetzak emango du.

B. Prestakuntza gaitasuna:

- Defendatutako tesien kopurua. Urte naturalean sailari atxikitako doktoregaiak defendatutako tesien kopurua da. Datu hau Graduoko eta Graduondoko Ikasketen arloko Errektoreordetzak emango du.
- Nazioarteko tesien kopurua. Lehengoan artetik nazioarteko aipamena dutenen kopurua da. Datu hau Graduoko eta Graduondoko Ikasketen arloko Errektoreordetzak emango du.
- Euskarazko nazioarteko tesien kopurua. Defendatutako tesien artetik, nazioarteko aipamena eta euskarazko aipamena dutenen kopurua da. Datu hau Graduoko eta Graduondoko Ikasketen arloko Errektoreordetzak emango du.
- Enpresekin eta beste erakunde batzuekin lankidetzan egindako tesien kopurua. UPV/EHUK kontratatuta ez dagoen doktoregaiak edo UPV/EHUtik kanpoko zuzendari edo zuzendarikide batek zuzenduta edo kanpoko erakunde batekin sinatutako lankidetzan hitzarmen baten babesean egindako tesien kopurua da. Datu hau Graduoko eta Graduondoko Ikasketen arloko Errektoreordetzak emango du.
- Doktorego tesirik zuzendu duten pertsonen kopurua. UPV/EHUren barruan iazko urtean defendatutako tesirik zuzendu duten IRIko kideen kopurua da. Datu hau Graduoko eta Graduondoko Ikasketen arloko Errektoreordetzak emango du.
- Master amaierako lanik (MAL) zuzendu duten pertsonen kopurua. Iazko urtean defendatutako MALik zuzendu duten IRIko kideen kopurua da. IRIren arloko errektoreordetzak emango du datu hau.
- Docentiaz programan parte hartu duten pertsonen kopurua (datu metatua). Datu hau Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzak emango du.

C. Ikertzaileen kontratuak:

- Doktore aurreko laguntzen onuradunen kopurua. Sailak prestakuntzan ari diren ikertzaile gisa kontratatutako pertsonen kopurua. Ikerketaren arloko errektoreordetzak emango du datu hau.
- Doktore ondoko laguntzen onuradunen kopurua. Doktorego ondoko gisa kontratatutako pertsonen kopurua da (22. artikulua edo ikertzaile kontratatuak). Ikerketaren arloko errektoreordetzak emango du datu hau.

D. Kanpoko finantzaketaren lortzea:

- Nazioarteko lehiaketa eta deialdietan eskuratutako itzulketak (k€). Urtero nazioarteko norgehiagokako deialdietan eskuratutako kopurua da. Ikerketaren arloko errektoreordetzak emango du datu hau.
- Nazioartekoak ez diren lehiaketa eta deialdietan eskuratutako itzulketak (k€). Urtero nazioartekoak ez diren norgehiagokako deialdietan eskuratutako kopurua da. Ikerketaren arloko errektoreordetzak emango du datu hau.
- Kontratupeko diru sarrerak (k€). ITRB edo Euskoikerren bidez sinatutako kontratuetan urtean metatutako kopurua da. Datu hau Garapen Zientifikoaren eta Transferentziaren arloko errektoreordetzak emango du.

Oharra: Emandako subentzioetan ez balego urtero ezarritako kopururik, finantzatutako jardueran iraunaldian zehar hainbanatuko da.

E. Pertsonalaren ikerketa jarduna:

- CNEAIk edo Unibasq-ek akreditatutako ikerketa tarteen kopurua. Saileko IRIk lortutako tarteen kopurua da, unean uneko urtearen aurreko deialdira arte. IRIren arloko errektoreordetzak emango du datu hau.
- Ikertaldetan parte hartzen duten irakasle-ikertzaileen kopurua. Eusko Jaurlaritzan edo UPV/EHU, modalitatea edozein delarik, aintzatetsitako ikertaldeetan ari diren IRIko kideen kopurua. Ikerketaren arloko errektoreordetzak emango du datu hau.
- Norgehiagokako proiektuetan parte hartzen duten irakasle-ikertzaileen kopurua. Norgehiagokako ikerketa proiekturen batean kasuan kasuko urtean parte hartzen duten IRIko kideen kopurua da. Ikerketaren arloko errektoreordetzak emango du datu hau.
- Kontratuetan parte hartzen duten irakasle-ikertzaileen kopurua. Erreferentziako urtean indarreko kontraturen batean parte hartzen duten IRIko kideen kopurua. Datu hau Garapen Zientifikoaren eta Transferentziaren arloko errektoreordetzak emango du.

3. oinarria. ESKATZAILEAK ETA GUTXIENENKO ZENBATEKOAK

3.1. Deialdi honetara UPV/EHUren sail guztiak aurkeztu ahal dira. Horretarako, zuzendariak, saileko kontseiluak edo batzorde iraunkorrak onartu ondoren, konpromiso agiria sinatu beharko du, non ezarriko baita urtero lehengo adierazleetatik zeintzuk helburu beteko diren.

3.2. Sail bakoitzak eskuratu ahal izango dituen zenbatekoak honetara banatuko dira: % 50a proportzionalki banatuko da, 2018/12/31ean sailak irakaskuntza gaitasunaz lanaldi osorako kontratatuta dituen irakasle-ikertzaileen kopuruaren arabera. Beste % 50a ere proportzioz banatuko da sail bakoitzerako formula hau erabiliz egindako kalkularen arabera eta adierazle bakoitzerako horietako bakoitzari dagozkion puntuen proportzioan:

$$\frac{(\text{Helburua}_{2022} - \text{Balioa}_{2018})}{\text{ArduraldiOsokoIRIKop}}$$

non izendatzailea den 2018/12/31ean sailak irakaskuntza gaitasunaz lanaldi osorako kontratatuta dituen irakasle-ikertzaileen kopuruaren arabera.

Sail guztiak aurkeztuko ez balira, banatu beharreko kopurua modu berean banatuko da aurkeztutako sailen artean.

3.3. Behin betiko finantzaketa lorpenen arabera zehaztuko da urtero formula honen bidez:

$$\sum \frac{(\text{LortutakoBalioa} - \text{BehekoMuga})}{(\text{GoikoMuga} - \text{BehekoMuga})} \times \text{AdierazlePuntuak}$$

non adierazle bakoitzaren *GoikoMuga* sail bakoitzak definitu eta eskarian agertuko baita (urteko helburuak). Balio hauek IGBBk aldatu ahal izango ditu gorantza, baldin eta irizten bada ez direla nahikoak sail eskatzaileak garatu beharreko ikerkuntza jardunerako. *BehekoMuga* ere sailak definituko du, 2018an (edo 2017/2018 ikasturtean, adierazlea ikasturtekoa bada) lortutako balioak erreferentzia harturik. *GoikoMuga* *BehekoMuga* baino handiagoa izango da beti. Nolanahi ere, formula hau aplikatzearen balioa ezin daiteke izan 1etik gorakoa.

Soberakinik sortuz gero, errektoreordetzak banatu ahal izango du berak sustatutako programarekin eta helburuekin konpromiso handiena duten sailen artean.

4. oinarria. FUNTSEN EZAUGARRIAK

Funtsen bidez sailen ikerketa jarduna sustatzeko gastuak finantzatu nahi dira, unibertsitatearen aurrekontu orokorren bidezko finantzaketaren edo kasuan kasuko arauzko bideetatik lor ditzaketen diru sarreraren osagarri.

5. oinarria. FUNTSEN IZAERA

5.1. Funtsak honako helburuotarako emango dira:

- a. Ikerkuntza jardunari loturiko ohiko azpiegitura zientifikoa eta ekipamendu informatikoa, UPV/EHUren Administrazio Kontrataziorako Zerbitzuaren bidez eskusibotasunez erositakoak. Horrela egin ezean, hau da, erosketa egiteko ez bazaio UPV/EHUK ezarritako prozedurari jarraitu, taldeari zenbatekoaren zati bat kendu ahal izango zaio, hain zuzen ere, erosketa horren zenbatekoa.
- b. Material suntsikorra.
- c. Bidaiak eta dietak, barne hartuta edozein motatako joan-etorrietako gastuak, biltzarretako parte hartzeak (eta izenematearen gastuak) eta beste zentro batzuetan egindako ikerketa egonaldi laburrak.
- d. Azpikontratazio gastuak deialdian diruz laguntzen diren ikerketa jardueretarako. Hau, gehienez, emandakoaren %25a ahal izango da, hala ere, behar bezala justifikatutako kasuetan eta aurretiaz motibatutako eskaera aurkeztuta zenbateko hori gehitu ahal izango da.
- e. Beste gastu batzuk, aurreko atalean zehaztutako gastuetan sartzen ez direnak, baina behar bezala egiaztatuta daudenak. Atal honetan sartu ahal izango dira: ekipamendu zientifikoa konpontzeko eta egoera onean izateko egindako gastuak, UPV/EHUren Zerbitzu Nagusiek egindako mantentze kontratuetan jasota ez badaude.

Egin beharreko gastua ez bada aurreko ataletan zehaztutakoa, baimena eskatu ahal izango zaio Ikerketaren arloko Errektoreordetzari. Nolanahi ere, funtsak ikerkuntzaren alde erabiliko ez balira, sailari murriztu ahal izango zaio urte horretan emandako zenbatekoa.

5.2. Azpiegitura zientifikoa ikertaldeari emandako finantzaketaren amaiera data baino bederlatzi hilabete lehenagora arte eska daiteke. Epe hau iraganik, sailak hiru hilabeteren epearen barruan eskatu ahal izango du epigrafe honi esleitutako finantzaketa beste atal batera eramateko. Epea iraganda eskatu gabe, IAEk berreskuratuko du finantzaketa.

5.3. Modu deszentralizatuan egin diren gastuen kasuan, jatorrizko faktura gorde beharko da sailean eta eskuragarri izan beharko da deialdi honen kargura emandako finantzaketaren inguruan Ikerketaren arloko Errektoreordetzak UPV/EHUko barne kontrolerako zerbitzuak edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, beren eskumenen babesean, egin ditzaketen egiaztapenetarako.

Inola ere ez da fotokopiarik onartuko jatorrizko agiriak galtzeagatik.

6. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEA

6.1. Sailek, aurkeztu nahi izanez gero, dokumentu honen eranskin gisa atxikitako inprimakia bete beharko dute eskaria egiteko; horretarako, 2018ko balioak eskatu beharko dizkiote Ikerketaren arloko errektoreordeari.

6.2. Eskariak Ikerketaren arloko Errektoreordetzara bidaliko zaizkio barne postaren bidez, gutunazalean "Sailen deialdia" adierazita.

7. oinarria. ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA

2019ko irailaren 26ko sailen berregituraketaren ostean, lehengo egitura mantentzen duten sailek 2019ko abenduaren 5era arte izango dute eskariak aurkezteko epea. Sorrera berriko sailek 2020ko apirilaren 1era arte izango dute eskaria aurkezteko epea. Data hori baino lehen eratu ez diren sailak ezin izango dira deialdi honetara aurkeztu.

8. oinarria. FINANTZAKETA GESTIONATZEKO ORGANOAK

IAEri dagozkio deialdi honetako diru finantzaketaren gestioari buruzko lanak.

9. oinarria. ESKAEREN IZAPIDEA.**Komunikazioa sailerako zuzendaritzekin**

Eskaerak aurkezteko epe bakoitza amaitu ondoren, IAEk aztertuko ditu aurkeztutako eskaerak. Gero, IAEk jakinaraziko die sailtako zuzendaritzei egindako azterketaren emaitza. Aurkeztutako dokumentazioa osorik ez balego edo zuzen litezkeen errakuntzak baleuzka, IAEk eskatuko dio saileko zuzendariari hamar lanegunen epea eskaria osatu edo zuzen dezan.

- Antzemango balitz eskarian jarri beharreko informaziorik falta dela eta beharrezkoa dela gerora egin beharreko balioespena egin ahal izateko, posta elektronikoaren bidez jakinaraziko zaio saileko zuzendariari hamar lanegunen epean kasuan kasuko informazioa eman dezan.
- Gehitutako datuak zuzenak ez direla antzeman ez gero, Ikerketaren arloko errektoreordetzak ofizioz aldatuko du eskaria.

Eskari onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda.

Emandako informazioa zuzendu eta gero, IAEren webgunean argitaratuko da eskari onartu eta baztertuen zerrenda behin-behinekoa, bazterrean uzteko arrazoia zehaztuz. Saitetako zuzendariak hamar lanegunen epea izango dute egoki leritzeketen alegazioak aurkezteko. Alegazio hauek Ikerketaren arloko errektoreordetzari zuzenduko zaizkio.

Onartu eta baztertutako eskarien behin betiko zerrenda.

Aurkeztutako alegazioak berrikusi eta gero, behin betiko onartu eta baztertutako zerrenda argitaratuko da Ikerketaren arloko errektoreordetzaren webgunean.

Eskariak balioesteko fasea

IAEk, ISBB aholkulari delarik, aztertuko ditu sailek helburuei buruz egindako proposamenak. 3.3 oinarriarekin bat etorruta, IGBBk onartu edo aldatu ahal izango ditu gorantza proposatutako balioak, baldin eta irizten badie ez direla nahikoak sail eskatzaileak garatu beharreko ikerkuntza jardunerako.

Behin-behineko ebazpena

IAE-k behin-behineko ebazpenaren proposamena egingo du, IAEren webgunean argitaratuko dena, eskari guztiek lortu beharreko helburuak adieraziz.

Saitetako zuzendariak 10 lanegunen epea izango dute egoki leritzeketen alegazioak aurkezteko. Aipatu epean alegazio espresurik jaso ezean, proposamenak onartutzat joko dira eta alegatzeko eskubidea bertan behera geratuko da.

Behin betiko erabakia

Epea hau iraganik, IAE-k IGBB-ri helaraziko dizkio aurkeztutako alegazioak, bertan azter daitezzen eta, ondorioz, behin betiko ebazpena egiteko proposamena helaraziko dio Ikerketaren arloko Errektoreordetzari.

Oneste zein ezesteko behin betiko erabakia IAEren webgunean argitaratuko da eta banakako ebazpena bidaliko zaie eskatzaileei.

10. oinarria. FINANTZAKETA ORDAINTZEKO BALDINTZAK

10.1. Deialdiaren erabakia argitaratu ostean, saileko zuzendariak sinatu beharko du deialdiaren erabakian proposaturiko finantzaketa baldintzak onartzen dituela dioen konpromiso dokumentua, non onartzen baititu deialdiaren ebazpenean proposatutako helburuak betetzeko baldintzak, ikerketa gestionatzeko zuzendaritzak emandako zenbatekoa eman dezan.

Ordainketa adieraziko dugun moduan egingo da:

- 2020. urtea: deialdian emandako zenbatekoaren % 34,38a.
- 2021. urtea: 2020. urteko txostena balioetsi eta gero, emandako zenbatekoaren beste % 34,38a ordainduko da 3.3 oinarriko formularen lortutako balioak biderkatuta.
- 2022. urtea: 2021. urteko txostena balioetsi eta gero, emandako zenbatekoaren gainerakoa ordainduko da 3.3 oinarriko formularen lortutako balioak biderkatuta.

2022. urteko txostenaren balioespenak balio ahal izango du 2023 urteko dotazioa kalkulatzeko, programaren jarraipena bada.

10.2. Aurrekontu hornidurari dagokion urtearen barruan egindako gastuak besterik ezin dira finantzatu, hau da, unean uneko urtearen barruan egindako erosketa, bidaiak, lan eta bestelakoei zegozkien gastuak.

11. oinarria. JARRAIPENA

11.1. Ikerketaren arloko Errektoreordetzak diru laguntza jaso duten eskaerei jarraipena egiteko prozedura antolatuko du.

11.2. **Urteko txostena.** Sailek hurrengo urteko lehenengo hiruhilekoa amaitu baino lehen txostena bidaliko dute ikerkuntza sustatzeko egindako jardueren inguruan.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Deialdi honek administrazio bidea amaitzen du, eta beronen kontra administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean, deialdia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Hala izanik ere, aukerazko birjartze errekurtsioa jarri ahal izango da erabakia argitaratu eta hilabetearen epean Ikerketaren arloko errektoreordearen aurrean, 39/2015 legearen 123. artikuluaekin bat etorrita.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Honako deialdi hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratzerakoan sartuko da indarrean. Ikerketaren arloko errektoreordearen esku geratzen dira honako deialdia hau garatu eta burutzeko beharko diren ekintza eta erabaki guztiak, bai eta, hala beharko balitz, epeak zabaltzeko aukera ere barne.

Leioan, 2019ko azaroaren 4an.

José Luis Martín González
Ikerketaren arloko errektoreordea
Vicerrector de Investigación

ERANSKINA

**IKERKUNTZA UPV/EHUren SAILETAN
SUSTATZEKO DEIALDIAn (2020-2022)
ESKARIA EGITEKO ORRIA****HOJA DE SOLICITUD PARA CONVOCATORIA DE
FOMENTO DE LA INVESTIGACIÓN EN LOS
DEPARTAMENTOS DE LA UPV/EHU (2020-
2022)**

SAILAREN DATUAK / DATOS DEL DEPARTAMENTO	
Izena / Nombre	
Campus / Campus	
Zuzendaria / Director-a	

_____ jaunak/andreak,
_____ saileko idazkariak,
behean sinatzen duenak, ziurtatzen du ezen
saileko kontseiluak 2019ko _____aren
_____ean egindako bileran IKERKUNTZA
UPV/EHUren SAILETAN SUSTATZEKO
DEIALDIARA (2020-2022) aurkezteko erabaki
zuela, atxikita doazen dokumentuan
adierazitako konpromisoekin.

D./Dña _____, secretario/a del
Departamento _____,
abajo firmante, certifica que el Consejo de
Departamento, en su reunión del día
_____de.....de 2019, acordó presentarse
a la CONVOCATORIA DE FOMENTO DE LA
INVESTIGACIÓN EN LOS DEPARTAMENTOS
DE LA UPV/EHU (2020-2022) con los
compromisos que se indican en el documento
adjunto.

Eta, hala jasota gera dadin eta eskaerarako
behar diren ondorioak sor ditzan, agiri hau
sinatzen dut (lekua eta data):

Y para que así conste a efectos de solicitud,
firma/n la presente en (lugar y fecha):

Sailaren zigilua
Sello del departamento

Saileko idazkariaren sinadura
Firma del Secretario/a del departamento

OHARRA: EZ DA ONARTZEN AGINDUTAKO SINADURARIK. SINADURA BAKOITZAREN ONDOAN, SINATZAILEAREN IZEN-DEITURAK IDATZI
BEHAR DIRA LETRA IRAKURTERRAZAZ.

	KONPROMISO ADIERAZLEA	Adierazle puntuak	Balioa 2018	Beheko Muga	2020ko helburua	2021ko helburua	2022ko helburua
1	Argitalpen zientifikoaren kopurua (WoS edo Scopus).	0.1					
2	Lehenengo kuartileko argitalpen kopurua (WoS edo Scopus).	0.1					
3	Nazioarteko baterako argitalpen zientifikoaren kopurua (WoS edo Scopus).	0.05					
4	Euskarazko argitalpen zientifikoaren kopurua.	0.02					
5	Defendatutako tesi kopurua	0.05					
5	Nazioarteko tesien kopurua	0.05					
7	Euskarazko nazioarteko tesien kopurua.	0.02					
8	Enpreekin eta beste erakunde batzuekin lankidetzan eginiko tesi kopurua.	0.02					
9	Doktorego tesirik zuzendu duten pertsonen kopurua.	0.05					
10	Master amaierako lanik (MAL) zuzendu duten pertsonen kopurua.	0.02					
11	Docentiaz programan parte hartu duten pertsonen kopurua (datu metatua).	0.05					
12	Doktore aurreko laguntzen onuradunen kopurua.	0.02					
13	Doktore ondoko laguntzen onuradunen kopurua.	0.02					
14	Nazioarteko lehiaketa eta deialdietan eskuratutako itzulketak (k€)	0.1					
15	Nazioartekoak ez diren lehiaketa eta deialdietan eskuratutako itzulketak (k€)	0.05					
16	Kontratupeko diru sarrerak (k€)	0.05					
17	CNEAIk edo Unibasq-ek akreditatutako ikerketa tartearen kopurua.	0.05					
18	Ikertaldetan parte hartzen duten irakasle-ikertzaileen kopurua.	0.1					
19	Norgehiagokako proiektuetan parte hartzen duten irakasle-ikertzaileen kopurua	0.05					
20	Kontratuetan parte hartzen duten irakasle-ikertzaileen kopurua.	0.03					

Saileko zuzendariaren sinadura
Firma del/de la Director/a del departamento